

# EZUSTEKO BIDAIA



GSK

**María Jesús Chacón Huertas**  
**Carmen Ramos**

Liburu hau GSKren babesari esker egin da,



© 2022

Egilea: María Jesús Chacón Huertas  
Ilustrazioak: Carmen Ramos

[www.weeblebooks.com](http://www.weeblebooks.com)  
[info@weeblebooks.com](mailto:info@weeblebooks.com)

Madrid, Espainia, 2022

Disclaimer:

Gardentasuna xede, GSK-k argitalpen honen finantzaketan parte hartu duela jakinarazten dizugu. Liburuaren edukiak egileen iritziak, irizpideak, ondorioak edota aurkikuntzak islatzen ditu, eta horiek ez dute zertan GSKrenekin bat etorri.

Informazio orokorra. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu zure medikuarekin.

Kodea: NP-ES-AOU-PINS-220050(v1) 09/2022

## **Itzalez eta argiz betetako ezusteko bide bati aurre egin behar dioten pertsona guztientzat.**

Ipuin berri honetan, Danel, Marko eta bere familia ezagutzera gonbidatzen zaituztegu. Elkarrekin partekatu ahal izango duzue haien istorioa. Haien beldurrak, frustrazioak eta larritasunak ezagutuko dituzue, baina alaitasunerako, ametsetarako eta ilusiorako lekua ere egongo da.

Bizitza bera ezusteko bidaia bat da, igoera eta jaitsierekin, baina beti itxaropenerako bidea dauka.

Bazaudete prest?

2022an Espainian Diagnostikatutako minbizi-kasuen kopurua 280 100 kasutara iritsiko dela kalkulatzen da, eta 2040an intzidentzia 341 000 kasutara igoko dela aurreikusten da.<sup>81)</sup> 2022an Espainian emakumeen artean gehien diagnostikatutako minbiziak bularrekoak, kolonekoak eta ondestekoak eta minbizi ginekologikoak izango dira.<sup>(1)</sup> Espainian, minbizi ginekologikoa hirugarren minbizirik ohikoena da emakumeen artean. <sup>(1/2)</sup> Tumore ginekologikoen artean, endometrioko minbizia da ohikoena, eta hurrengoak, obulutegiko minbizia eta umetoki-lepoko edo zerbixeko minbizia dira.<sup>(1)</sup>

Datuez gain, minbizi-diagnostiko bat izatea heriotzaren sinonimoa ez dela jakin behar dugu. Gure gizartean, gero eta minbizi-kasu gehiago sendatzen dira, eta kasu askotan sintomak behar bezala kontrola daitezke. Gero eta denbora gehiago ematen da arlo horretan ikerkuntzan, betiere minbizi mota desberdinetarako sendabidea lortzen saiatuz edo minbizia duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen saiatuz.<sup>(3)</sup>

## GSK Espainiako Pazienteekiko Harremanen Arloa

Erreferentziak:

1. Minbiziaren datuak Espainian, 2022 [Internet]. Onkologia Medikoko Espainiako Elkarte (SEOM). 2022ko otsailaren 1ean argitaratua [Azken kontsulta: 2022ko uztaila]. Hemen eskuragarri: [https://seom.org/images/LAS\\_CIFRAS\\_DEL\\_CANCER\\_EN\\_ESPANA\\_2022.pdf](https://seom.org/images/LAS_CIFRAS_DEL_CANCER_EN_ESPANA_2022.pdf).
2. Minbiziari Buruzko Europako Informazio Sistema (ECIS). Minbiziaren eta hilkortasunaren kalkuluak 2020. urtean, minbizi gune guztietarako [Internet]. 2020. [Azken kontsulta: 2022ko uztaila]. Hemen eskuragarri: [https://gco.iarc.fr/today/online-analysis-table?v=2020&mode=cancer&mode\\_population=continents&population=900&populations=724&key=asr&sex=2&cancer=39&type=0&stastic=5&prevalence=0&population\\_group=0&ages\\_group%5B%5D=0&ages\\_group%5B%5D=17&group\\_cancer=1&include\\_nmsc=0&include\\_nmsc\\_other=1#collapse-group-0-4](https://gco.iarc.fr/today/online-analysis-table?v=2020&mode=cancer&mode_population=continents&population=900&populations=724&key=asr&sex=2&cancer=39&type=0&stastic=5&prevalence=0&population_group=0&ages_group%5B%5D=0&ages_group%5B%5D=17&group_cancer=1&include_nmsc=0&include_nmsc_other=1#collapse-group-0-4)
3. Minbiziari buruzko uste okerrak, mitoak eta sasiterapiak [Internet]. Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte. [Azken kontsulta: 2022ko uztaila]. Hemen eskuragarri: [https://www.contraelcancer.es/sites/default/files/content-file/Creencias-erroneas-cancer\\_0.pdf](https://www.contraelcancer.es/sites/default/files/content-file/Creencias-erroneas-cancer_0.pdf)

# Hauen onarpena eta/edo gizarte-bermea du:

erakundearen laguntzarekin



—Begira, Danel, lehiaketa bat! —egin zuen oihu Markok—. Apuntatuko gara?

—Nola apuntatuko gara? Tira, utzi txorakeriak! —erantzun nion anaiari, ideia burutik kendu nahian.

—Bai, begira, irakurri! —ekin zion, institutuko iragarkia ozenki irakurtzen zuen bitartean.

—Ikusten, Danel? Guretzat egin dutela dirudi. Istorio bat dugu partekatzeko! Zuk hain ondo idazten duzu... Jadanik azterketak amaitu ditugu, datorren astean Gabonak dira... Denbora soberan duzu. Une ezin hobea da!

### GAZTEENTZAKO I. KONTAKIZUN LEHIAKETA

**Idatzi EZUSTEKO BIDAIA  
bati buruzko kontakizuna**

Istorio ahaztezin  
bat baduzu,  
lehiaketa hau zuretzat da  
DBHko 3. eta 4,  
mailako ikasleentzat

**Bidali helbide honetara:**  
ezustekobidaia@zureinstitutua.com

**Entrega-epea:** 4 aste

**SARIA:** kontakizun irabazlea hiriko  
marrazkilarari onenetako batek  
ilustratuko du eta sare  
sozialetan argitaratuko da

Berriro irakurri nuen: «...eta sare sozialetan argitaratuko da». Azken esaldi horrekin buruan geratu nintzen. Gure istorioak, urruneko kasualitatez, lehiaketa irabaziko zuela eta munduan zehar bidaiatuko zuela imajinatzen hasi nintzen. Horrek parte hartzera bultzatu ninduen.

—Bale, aski da, astun hori, konbentzitu nauzu eta! Baina, gauza bera pentsatzen ari gara, ezta? —esan nuen pentsakor.

—Bai, bai, noski! Amaren bidaia.

—Bueno, baina, egia esan, ez da bidaia bat.

—Nola begiratzen duzun arabera, Danel. Bidaia guztiek hasiera eta amaiera dute, ezta? Bada, amaren bidaia duela lau urte hasi zen eta, dena ondo badoa, laster amaituko da.

—Arrazoia duzu, Marko! Bidaia diferentea da...




Horrela konbentzitu ninduen nire anaia bikiak lehiaketan parte hartzeko. Fisikoki berdin-berdinak garelako ez balitz, inork ez luke esango anaiak garenik. Hain berdinak eta hain ezberdinak gara aldi berean... Bera ni baino ausartagoa eta ipurtarinagoa da. Gainera, hitzaren gaitasuna du, ez dakit nola egiten duen, baina guztiek gustuko duten pertsona horietako bat da. Berari buruz gehien gustatzen zaidana beti negatiboaren positiboa ikusten saiatzen dela da. Tira, Marko da etxeko poza. Horregatik guztiagatik, suposatzen dut, amak bere bidaia hasi zuenean, nik eguneroko moduko bat idazten hasi nintzen, gure urtebetetzean oparitu zigutena. Eta Markok, beti ez idazteko aitzakiaren baten bila zebilenez, berea oparitu zidan. Ah! Txakurtxo bat dugu, Nela izenekoa. Osaba Dabik oparitu zigun zazpi urte bete genituenean. Osaba Dabi amaren anaia da, eta gure aitabitxia izateaz gain, nire osaba kuttuna da. Asko lagundu zidan amaren egoerarekin. Marko, ordea, Nelan babestu zen.





Osaba Dabi gure etxetik gertu bizi da. Ezkongabea da. Umeak maite ditu, horregatik da hain irakasle ona. Hegazkinak ere asko gustatzen zaizkio, hegazkin mota guztiei buruz irakurtzen du beti. Batzuetan, txikiak ginenean, aireportura eramaten gintuen, hegazkinak aireratzten eta lurreratzen ikus genezan. Eta zehatz-mehatz kontatzen zigun zekien guztia: modelo hori non egin zen, zenbat denbora behar izan zuten beste hura egiteko, zenbat bidaiari sartzten ziren... Eta, azkenean, hainbeste hitz egiten zigun, non bere grina kutsatzea lortu baitzuen. Ba al dakizue zer den barregarriena? Bada, osaba Dabi burusoila dela, hain da burusoila, bere buruak ere lurreratzeko pista dirudi, kar, kar. Ez dut inoiz ile bakar bat ere ikusi bere buruan. Segur aski, munduko burusoil guztien artean burusoilena da. Eta ez pentsa ilerik ez duenik, ez, moztea gustatzen zaio. Beti esan digu zortea ematen diola.

Bere soilgunea ukitzen bagenuen, guri ere zortea emango zigula esaten zigun. Beraz, txikitatik, anaiak eta biok bere burutik pasatzen genuen eskua azterketa bat gairitu nahi genuenean, adibidez. Niri beti funtzionatzen zidan, baina anaiari ez hainbeste, batzuetan huts egiten baitzuen. Eskua burutik behar bezala pasatu ez zuelako zela uste zuen.





Gogoan dut burua horrela zergatik mozten zuen galdetu nion eguna. Nik bederatzi bat urte izango nituen. Orduan, bere altzora igo ninduen, zerbait garrantzitsua esan behar zidan guztietan bezala, eta azaldu zidan:

—Badakizu, Danel, beti esan dizut burusoilek zortea ematen dutela, ezta? Bada, tira, hori da arrazoi bat, baina beste arrazoi bat dago nik burua arradatzeko.

—Zer? Ez dizut ulertzen, osaba.

—Ea nola azaltzen dizudan, txiki —esan zuen, hori egiteko hitzik onenak bilatzen zituen bitartean—. Nire laguna Joseba ezagutzen duzu, ezta?

—Bai, ile luzea duena?

—Bai, bai, hori. Zuk diozun ile luze hori orain dauka, baina garai batean burusoila egon zen, eta gaizki pasatu zuen, oso gaizki.

—Minbizia izan al zuen, osaba?

—Baina, tira, Danel, ni nola azaldu pentsatzen, eta zu horrela besterik gabe esaten didazu.

—Atzo, jolas-orduan, minbiziak hitz egiten aritu ginen lagunekin. Nagorek bere aitona pos... pos... datako minbizia zuela esan zigun. Edo horrelako zerbait.

—Kar, kar, kar! —barre egin zuen osabak—. Prostatako minbizia, Danel, prostatakoa —zuzendu zidan.

— A, bai! Emango zizkieten sendagaiarekin ilea eroriko zitzaiola kontatzen hasi zitzaigunez... Ez nuen ongi entzun izena.



— Jakina, normala! Beno, horixe gertatu zitzaion Josebari. Baina berak ez zuen prostatako minbizia izan, biriketako baizik. Zuk diozun botika hori, kimioterapia deitzen da. Hain da indartsua, ilea erorarazten dizula. Hori bai, gero, tratamendua amaitzen denean, ileak denbora behar du berriro hazteko, baina lehen baino indar handiagoz egiten du. Horregatik, Josebak orain hainbeste harrotzen da bere ile luzeaz.

—Bueno, baina zer zerikusi du horrek zu burusoil egotearekin?

—Bada, begira, badakizu zer gertatzen den? Zuk zure gauzak kontatzen dizkidazun bezala, nire lagunak oso gaizki pasatu zuen, batez ere hasieran. Bera nigan babestu zen eta nola sentitzen zen kontatu zidan. Unerik okerrena ile-apaindegira joatea erabaki zuenean izan zela uste dut. «Ez dut ikusi nahi ilea pixkanaka nola erortzen zaidan, Dabi. Bihar ilea larru-arras moztera joango naiz», esan zidan nire lagunak.

»Orduan, nik, garrantzia kendu nahian, esan nion: «Bihar? Eta zergatik ez orain? Nik arrasatu ahal dizut burua, hemen daukat makina. Banoa haren bila».



Josebak harrituta begiratu zidan. Ez nion erantzuteko astirik ere eman, komunera zuzenean joan eta ilea mozteko makinarekin itzuli nintzen. «Ikusten? Hemen dago! Ni prest nago, eta zu?», galdetu nion. Isilik geratu zen, eta nik hitzik esan gabe jarraitu nuen. Bere begirada tinkoak despistatu egin ninduen. Azkenean, berak ere harritu ninduen bere erantzun irmo eta umoretsuarekin: «Prest, Dabi! Baina, kontuz! Ez nazazu hozkarik egin!»

»Eta horrela kaskamotz utzi nuen nire laguna Joseba. Amaitu genuenean, ispiluan begiratu zion bere buruari, eta ezin izan zuen tristura ezkutatu. Orduan, nik, ia pentsatu gabe, makinatxoa hartu nuen berriro, eta, ematen nion bitartean, esan nion: «Tori, orain nire txanda da. Ni ere prest nago!». «Baina zer diozu! Burutik jota al zaude?», erantzun zidan ia haserre. «Tira, nik ere nahi dut!», errepikatu nion. Eta nire laguna Josebak burua arrasatu egin zidan, Danel. Eta ordutik, burusoil nago, zuk diozun bezala. Ez nuen lehendik pentsatu. Horrela gertatu zen une horretan. Une latz hartan nire laguna laguntzeko modu bat izan zen.



Ikusten? Osaba Dabi bikaina dela esaten dudanean, benetan bikaina dela esan nahi du. Txikitan, ia beti berarekin eskolara joaten ginen, gure eskolan lan egiten duelako, noski. Horrela, ama lehenago joan zitekeen lanera. Osaba Dabi eta ama herri txiki batean jaio ziren, Iturriondon. Gure herriko etxea plazan dago, eta osabarena, atzeko kalean, parkearen ondo-ondoan. Nahiago nuke haur guztiek herri bat balute. Markori eta niri asko gustatzen zaigu joatea. Izan ere, herrian egotea beste mundu batean egotea bezala da. Hiritik hurbil dago, baina zaratatik eta denboraren joanetik urrun. Udaberrian eta udan joaten gara gehien herrira. Baina, batzuetan, elurra egiten duenean, Astebururen batean joan-etorriren bat ere egiten dugu. Herrian, aitak eta amak gu bakarrik bizikletan ateratzen uzten digute. Beti esaten digute herrian ez dagoela hirian adinako arriskurik. Nire unerik gogokoenetako bat da, udaren amaieran, laurok bizikletan goazenean masusta handi batzuk hartzera. Amak horrelakoak bere herrian bakarrik daudela esaten du. Nik pixka bat ahohandi dela uste dut, egia esan. Eta aitak ere hala uste du. Uda amaitzen denean eta etxera itzultzeko autora igotzen garenean, hain gaude triste eta goibel, non anaiak galdera bera egiten baitio aitari:



—Aita, datorren asteburuan etor gaitezke?


—Au, Au! —zaunka egiten zuen Nelak, berak ere itzuli nahi balu bezala.

Eta aitak, Markok bere betiko galdera bukatu baino lehen, erantzun bera ematen zion.

— Ikusiko dugu, txiki, agian bai, agian ez! Nork daki zer gertatuko den datorren asteburuan? Utzi bizitzak zu harritzen, Marko. Egunez egun bizi behar da.

Hori da aitaren esaldi gogokoenetako bat: «Egunez egun bizi behar da». Hainbeste entzun ondoren, azkenean, egunen batean ikasiko dudala uste dut, ezta? Eta bizitzak harritzen bagaitu; aitak arrazoi zuen. Denbora gutxian, bi sorpresa jarraian izan genituen: bat ona eta bestea txarra.

EGUNEZ EGUN BIZI BEHAR DA



Sorpresa ona hamar urte bete genituen egunean iritsi zen. Osaba Dabi ia beti gu zoriontzen lehena zen, baina egun hartan, aitak eta amak eskolara eraman gintuztenez, ez genuen ikusi. Telefonoz ere ez zigun deitu, bai arraroa. Uste dut aita eta ama ados zeudela berarekin, ez ziotelako garrantzirik eman. Arratsaldean, askari handi bat egin genuen etxean. Gure lagunak etorri ziren, baita amaren lagunik onena ere, Mertxe. Gure lagunak joan zirenean, amak mezu bat bidali zion osabari etor zedin. Hori osabak kontatu zidan gero, ni ez bainintzen konturatu. Txirrinak jo zuenean, Marko eta biok korrika joan ginen irekitzera.

—Osaba, azkenean, gure urtebetetzea ahaztu zaizula uste nuen! —egin zuen oihu Markok.

Harengana oldartu eta musu handi bat eman genion. Hark hamar aldiz belarrietatik tiraka zoriondu gintuen.

—Baina nola ahaztuko zait, hori ezinezkoa da! Zuen urtebetetzea nirea baino hobeto gogoratzen dut, kar, kar.



Osabak ama, aita eta Mertxe agurtu zituen (elkar ezagutzen zuten ere) eta berarentzat tarta zati bat gorde ote genuen galdetu zigun.

—Jakina, osaba, zati handi hau zuretzat da! —esan nion.

Marko nigana etorri zen eta belarrira xuxurlatu zidan oso arraroa zela osabak oparirik ekarri ez izatea. Amak ikusi gintuen eta errieta egin zigun:

—Ez murmurikatu, gizalege txarrekoa da! Zer gertatzen da?

—Ezer ez, ama, barkatu! —oihu egin zuen Markok.


—Utzi mutilak, ez da ezer gertatzen! —defendatu zigun osabak.

Amak tarta baino zerbait gehiago jateko ekin zion, baina osabak ez zuen nahi. Tarta jaten amaitu bezain laster, esekitokirantz joan eta bi gutun-azal atera zituen poltsatik.

—Bueno, beno, orain nire mutilen oparia! Hau zuentzat da!

—Gutun-azal bat? — galdetu zuen Markok urduri.

—Gutun-azal bat eta gutunazalaren barruan dagoena.




Markok eta biok kontu handiz ireki genituen gutun-azalak. Haietako bakoitzean bi kartoï mehe zeuden...

—Baina bai opari bitxia, osaba!  
—Tira, irakurri zer jartzen duen!

Irakurtzen hasi ginen eta ezin genuen sinetsi!

—Ama, aita, ze ondo, hegazkin-txartelak dira!  
—Eskerrik askooo, osaba, onena zara! —esan nion pozez zoratuta.

Aita eta ama gu bezainbeste harritu ziren. Haiek ere ez zekiten. Hiru aste besterik ez ziren falta bidaiarako. Orduan, amak billeteak hartu eta aitari erakutsi zizkion, data adieraziz.





—Zer gertatzen da, arreba? —galdetu zuen osabak.

—Ez, ezer ez, datari begira nengoen, medikuarengana joan behar dudan egunarekin bat zetorrela uste nuen, baina ez. Hau oparia, nebatxo!

—Medikuarengana? Zerbait gertatzen al zaizu? —galdetu zion kezkatuta.

Amak aitari nola begiratzen zion ikusi nuen, eta aitak buruaz baietz egin zuen. Orduan amak erantzun zuen:

—Bularrean konkorr txiki bat daukat, ziur ez dela ezer, baina, badaezpada, medikuak espezialistarengana bidali nau.

—Datorren astean dugu hitzordua. Horrela lasaiago geratuko gara denok! —esan zuen aitak—. Eta zuek, mutilok, ez al duzue etxeko lanik biharko? Esan agur Mertxeri eta osabari eta zoazte biharko etxeko lanak egitera.

—Bale, aita!

Oso zoriontsu joan ginen gure gelara. Hegazkinez bidaiatuko gara lehen aldiz! Marko eta biok hain geunden hunkituta, non ia ahaztu egin baikenuen amarena. Egun hartan lehen aldiz konkorr bat zuela entzun genuen. Eta biok konkorr onak eta txarrak zeudela bagenekien ere, nire anaiaren inozoa amarena ona izango zela ni konbentzitzen saiatu zen. Ziur zegoen osabaren burusoilak, gure zortearen kutunak, beti babesten gintuela.



Biharamunean, eskolan, bidaiaren berri eman genien lagunei. Nire laguna Aritzek esan zidan ez zela hainbesterako, bi aldiz bidaiatu zuela hegazkinez, eta pixka bat ahohandi nintzela esan zuen. Amarena herriko masustekin gogorarazi zidan. Eta Haizeak, Markoren lagunik onenak, anaiari esan zion itsasontziz bidaiatzea askoz ere zirrargarriagoa zela hegazkinez joatea baino. Ez zirela pozten bazirudien.

Etxera iritsi ginenean, amari kontatu genion eta amak garrantzia kendu zion.

—Ez kezkatu, normala da! Haiek jadanik hegazkinez bidaiatu dute eta, gainera, ez dute osaba Dabi bezalako bat izateko zorterik, hegazkinei buruz dakizuen guztia kontatuko diena.

—Egia da, ama! —erantzun nion.


—Aita eta biok ere ilusio handia dugu bidaia honekin. Ikusiko duzue, zoragarria izango da!

—Eta hegazkinean zorabiatzen bagara, ama?

—galdetu nion apur bat larrituta.

—Tirolinetatik botatzea asko gustatzen zaizue, ezta? Nola zorabiatuko zarete? Ez dut uste!

— Munduko amarik onena zara! —oihu egin zuen anaiak.



Egia da, ama onena da. Aita batzuetan lanetik haserre etortzen denean, amari kontatzen dio eta berehala lasaitzen du. Eta anaiari edo bioi zerbait gertatzen zaigunean, ez dugu esan beharrik ere, berak sumatzen baitu. Barrutik begiratzeko betaurrekoak jarriko balitu bezala da, superboterea duela uste dut.

Amari beti gustatu zaio bere burua zaintzea. Kirola egiten saiatzen da astean bitan edo hirutan. Duela urte batzuk, korrika egiten hastea erabaki zuen. Eta bost kilometro korrika egitea lortu zuenean, bere laguna berarekin korrika egitera joateko konbentzitu zuen. Orain, biak korrika, hamabi kilometro egiten dituzte! Horrelakoa da nire ama, nik esaten diot pixkanaka-pixkanakaren erregina dela. Bere esaldi nagusia hau da: «Dena zerbaitengatik gertatzen da, eta bizitzan benetan garrantzitsua dena pixkanaka pasatzen da beti».

Gure urtebetetze egunetik, amak ez zigun ezer gehiago esan bere konkorrari buruz. Korrika egitera ere ez zen joan, bai arraroa!

— Ama! Ez zara Mertzerekin korrika egitera joango?

— Ez, Danel, ez. Ez naiz ondo sentitzen, pixka bat nekatuta nago. Lanarengatik izango da. Ea datorren astean hobeto nagoen, seguru pasatuko zaidala.



Ama disimulatzen saiatu zen, baina ez zuen itxura onik. Banekien amak ez zuela kirolik egiten benetan gaizki zegoelako. Markori kezkatuta nengoela esan.

—Eta ama gaizki badago konkorragatik, Marko?

—Ez, Danel, ez pentsatu horretan, horregatik ez dela ikusiko duzu! Ama ez da une batez ere gelditzen, horregatik hain nekatuta dago. Hiru egun falta dira medikuarengana joateko, ezta?

— Bai, ostiral goizean.

Hiru egun horietan, etxean, bidaia besterik ez genuen hizpide: egingo duen eguraldia, eraman behar genuen arropa, bisitatuko genituen tokiak eta, hoberena, aitak Interneten zeuden joango ginen jolas-parkeko argazkiak erakusten zizkigun etengabe. Ze polita! Aste hori amaaigabea egin zitzaigun, bazirudien denbora ez zela igarotzen... Azkenean, ama espezialistarekin, onkologoarekin, zuen hitzordutik itzuli zen eguna iritsi zen arte. Eta orduan, bigarren sorpresa ekarri zigun, sorpresa txarra.



Atzo balitz bezala gogoratzen dut. Ostiral hartan, anaia eta biok ez ginen ohi bezain pozik etxeratzen. Urduri geunden, noski. Atarira iristear geundela, osabak amaren mezu bat jaso zuen gurekin igotzeko esanez. Aita gure zain zegoen, atea irekita.

—Zer moduz nire mutilak? Zer moduz eskola?

—Kaixo, osaba Dabi! Eta ama? Zer esan dizue medikuak?

—galdetu zion anaiak, azeleratuta.

—Zatozte, goazen! Orain kontatzen dizuegu, hitz egin behar dugu.

Ez zaizkit batere gustatzen lau hitz horiek. Norbaitek «hitz egin behar dugu» esaten duenean, kontatuko duena zerbait txarra dela esan nahi du. Pelikuletan ere gertatzen da. Zuzenean joan ginen egongelara txintik esan gabe. Ama bere lekuan eserita zegoen. Musu bat eman genion, eta anaia eta biok alde banatan eseri ginen. Aita, aurreko sofan, eta osaba, bestean. Orduan, entzun nahi ez genuen hori esaten hasi zitzaigun ama:



—Beno, badakizue azken aste hauetan ez nengoela oso ondo. Pilatutako nekea besterik ez zela pentsatu nahi nuen, baina ez. Onkologoak baieztatu dit bularrean daukadan konkorr hori tumore gaizto bat dela, beraz tratamendua hasi behar dut.

—Berri txarra izatearen barruan —jarraitu zuen aitak—, hasierako fasean harrapatu dugu, eta hori ona da.

Nela, aitaren oinetan etzanda, intzirika hasi zen, triste balego bezala. Marko haserretu egin zen aitak esandakoagatik.

—Hori ez da berri ona! Minbizia izatea ez da berri ona! —oihu egin zuen.

—Markok arrazoi du, amak minbizia izatea ez da berri ona, aita! —esan nuen, negar egiteko gogoari eutsiz.

—Noski ezetz! Garaiz detektatu izana oso garrantzitsua dela esan nahi dut —argudiatu zuen aitak.

—Hala da, mutilak. Lasaitu zaitetze —aita defendatu zuen amak—. Badakizue minbizia dela gaixotasunik zabalduenetako bat eta, minbizi mota asko daude. Zientziak asko egin du aurrera eta gaur egun horietako asko sendatu egiten dira. Aitak esan nahi duena da, konkortxo hau atera izan ez balitzait, agian ez zidatela detektatuko aurreratuago egon arte. Berri ona da, ikusten?



Berriz ere amak ia konbentzitu gintuen. Anaia eta biok oraindik apur bat zur eta lur geunden, zer esan jakin gabe. Orduan amak jarraitu zuen:

—Aitak eta biok hasiera-hasieratik kontatu nahi izan dizuegu, gure bizitza pixka bat aldatuko baita. Sentitzen dut, mutilak, gehien mintzen nauena bidaia atzeratu beharko dugula da. Dabi, hegazkin-txartelak aldatu ahal izango dituzu?

—Seguru baietz, bihar bertan agentziatik pasatuko naiz, ea zer esaten didaten.

—Ama, ez kezkatu bidaiarengatik, ondo zaudenean joango gara, ezta, Marko?

—Noski! Orain beste bidaia bat egokitu zaigu: ezusteko bidaia, ama. Eta guk lagunduko dizugu. Bidaia hau ere elkarrekin egingo dugu! —oihu egin zuen anaiak.

—Badakit, laztana, onenak zarete! Hala ere, bihurgune batzuk izango ditugu bidaia honetan...

Zein harro nagoen anaiaz, zein hitz politak! Ama hunkitu egin zen eta malko batzuek ihes egin zioten. Orduan, gogor besarkatu genuen. Nela hurbildu egin zen, laztan genezan.



—Au, au, au! —zaunka egin zuen bere isatsa mugituz.

—Tira, aski da sentimentalismoarekin. Nela paseatzera atera ahal duzue pixka batean, mutilak? —esan zuen amak, malkoak lehortu—. Gaur goizetik ez da irten. Asteburuan hitz egiten jarraituko dugu, ados?

Osaba amarekin geratu zen aita, Marko eta hirurok Nela ateratzera joan ginen bitartean.

—Dabi, datorren astean kimioa hasiko dut. Ilea mozten laguntzea gustatuko litzaidake. Noiz daukazu momenturen bat? Erortzen hasi baino lehen mozte nahiago dut. Ileorde bat erostea pentsatu dut. Asteburu honetan, onkologoak zer esan digun azalduko diegu mutilei, zertan datzan tratamendua... Ez nituen lehenengo egunean larritu nahi. Badakizu, neba, hobe da egoera onartzea...

—Pixkanaka, arrebatxo, bai horixe. Mutilak nagusiak eta arduratsuak dira. Ondo egongo dira, ikusiko duzu.

—Bai, hala espero dut. Hala ere, egoera zaila da guztiontzat.

—Zu indartsua zara, orain zutaz arduratu eta medikuak esandako guztia egin besterik ez duzu egin behar. Eta saiatu ahalik eta lasaien egoten. Nahi baduzue, astebururen batean mutilak herrira eraman ditzaket. Ongi etorriko zaizue.

—Tira, ikusiko dugu. Bai, ideia ona da, Dabi. Mila esker guztiagatik, hoberena zara.





Biharamunean, anaia eta biok aitarekin erosketak egitera joan ginen bitartean, ama etxean geratu zen. Aitari erosketak gordetzen lagundu genion eta, gero, aitak kafe bero bat prestatu zion amari. Orduan, berarekin eseri eta hitz egiten jarraitu genuen. Nela erabat lo zegoen.

—Baina, mutilak, ez begiratu aurpegi horrekin, ondo nago eta! Datorren astean kimioterapia hasiko dut.

—Dagoeneko? Hain azkar? —galdetu nion larriturik.

—Bai, Danel, zenbat eta lehenago, hobe. Badakizue kimioa minbizia tratatzeko sendagaietako bat dela.

—Nagoreren aitonari erradioterapia baino ez zioten eman, ama.

—Eta zuk nola dakizu hori, laztana?

—Nagorek kontatu zidan egun batean jolas-orduan. Eta osabak ere kontatu zidan bere laguna Josebaren biriketako minbiziarena.

—Bai, minbizia uste baino ohikoagoa da. Jende askok ezagutzen du norbait minbiziarekin. Baina familia batzuek seme-alabei egoera ezkutatzeari nahiago dute txikiak direnean. Amak eta biok uste dugu guztiontzat onena horretaz hitz egitea dela. Zerbait galdetu nahi badiguzue, aurrera... —esan zuen aitak.



Orduan, nire anaiari denbora falta izan zitzaion erantzunik gabeko galdera bakarra galdetzeko:

—Eta jarriko dizuten kimioterapiarekin sendatuko zara, ama?

—Tira, kimioterapia da nire minbizia tratatuko duen medikuntza, bai. Eta minbizia desagertzen lagunduko dit. Baina, egia esan, hain indartsua denez, nire organismoa ahuldu egingo du. Badakizue zergatik?

—Ez, zergatik? —galdetu genuen biok batera.

—Bada, paziente bakoitzaren kimioak, zelula txarrak hiltzeaz gain, onak ere hiltzen dituelako. Orduan, defentsak gutxitzen ditu eta, beraz, gorputza ahultzen da. Kimioak, minbizia desagertzen laguntzeaz gain, gaixotasunaren sintomak arintzeko, berriz agertzeko arriskua gutxitzeko eta minbizia duten pertsoneri balio du.

Arretaz entzun nuen amak azaltzen zigun guztia. Anaiak ez duela entzuten uste dut, hurrengo galdera bota nahi zuelako.



—Eta, orduan, ilea eroriko zaizu, ezta? —esan zuen.

—Bai, baina ez, Marko.


—Ehfff?

—Uste dut baietz, noski. Baina ostiralean arratsaldean osabak ilea arradatuko dit. Lagunduko diozue? Nahi baduzue, zuek moztuko didazue pixka bat, eta gero berak burua Caillou bezala utziko dit kar, kar, kar. Ah! Eta ileorde bat erosiko dut, kalera ateratzeko bakarrik jartzen badut ere.

—Agian hobe duzu etxean geratzea, ama —esan nion.

—Ea kimioa nola egiten didan, Danel. Printzipioz, nire ideia bizitza ahalik eta normalena egitea da. Lehen egunetan ahul samar egongo naizela uste dut, baina aurrera egiten saiatuko naiz. Eta ezin badut korrika egin, oinez joango naiz. Garrantzitsuena jarraitzea da... eta nire zaintzaileekin, zelako zorte ona dudan!

Ama sinestezina zen, ia berak gu animatzen gaitu. Eta berriro ere egin zuen: une zail batetik une berezi bat sortzea lortu zuen. Kimioterapiako ziklo emango zizkiotela esan zigun.



Egun hartatik, nire anaia arraro ibili zen, ez zirudien berdina. Munduarekin haserre balego bezala zen. Ia ez zuen hitz egiten eta beti aitzakiaren bat bilatzen zuen bere gelan egoteko. Orduan, nik, bera konturatu gabe, kontuz irekitzen nuen berea atea Nela sar zedin. Eta berarekin hitz egiten zuen, bai, guri kontatzera ausartzen ez zen guztia xuxurlatzen entzuten nuen.

Ostiral arratsaldean, etxera itzuli ginen osabarekin. Amari ilea moztuko genion arratsaldea zen. Marko zuzenean bere gelan sartu zen, baina oraingoan berak utzi zuen atea erdi irekita. Selfie bat egin nahi zuela aitzakiazat hartuta atera zedin konbentzitzen saiatu zen ama. Ez zuen lortu. Aitak eta osabak dena prestatu zuten egongelan. Disimulatu egiten nuen, ondo banengo bezala, baina, egia esan, ez nengoen ondo. Eta amari ilea mozten hasi ginen. Lehenengo, aita, eta gero, ni. Zein gaizki egin genuen! Zelako hozkak...

—Baina, mutilak, zer ari zarete egiten? Danel, nik esaten dizut ile-apaintzaile gisa ez duzula bizitza irabazten, kar, kar, kar!



Amak Markori deitu zion berriro. Atea entzun zen, kanpora joango balitz bezala, baina ez, alarma faltsua. Marko ez zen irten. Nahi zuen, baina ezin zuen.

—Orain nire txanda da! —esan zuen osabak—. Belarra mozteko prest?  
—Prest! —oihu egin zuen amak.

Eta osaba hasi zen. Ez zitzaion bost minutu ere kostatu amari burua berea bezala uztea. Orduan, osabak bere lagun Josebaren eta beraren istorioa kontatu zidan egunean etorri zitzaidan burura. Eta pentsatu gabe, oihu egin nuen:



—Nik ere nahi dut, osaba! Ama bezala utzidazu ilea, mesedez!

Amak eta aitak harrituta begiratu zioten elkarri.

—Inola ere ez, Danel! Ezta pentsatu ere, ez duzu zergatik egin behar.

—Bai, ama, horrela, gero, ilea sendoago haziko zait!

—esan nion osabari begira, benetako arrazoia hori balitz bezala.

Orduan osabak hunkiturik eta harro begiratu zidan. Bera zen hori egin nahi zuen benetako arrazoia zekien bakarra. Bat-batean, Nela egongelan agertu zen. Eta haren atzean, pauso batzuk entzun genituen hurbiltzen ari zen norbaitengandik... Marko zen!

—Eta nik ere bai! Gero, niri, osaba. Amari bezala arradatzea nahi dut! —egin zuen oihu anaiak, begi distiratsuekin.

Ama poztu egin zen Marko ikusteaz. Une horretan, azkenean, bostok egin genuen amak hainbeste nahi zuen selfiea. Tira, bostak ez, seiak, Nela ere atera zelako. Kostatu zitzaigun aita eta ama konbentzitzea osabak gu arrada gaitzan, baina azkenean lortu genuen.



Azkenean, une hartatik aurrera, nire anaiari munduarekiko haserrea pasatu zitzaion. Nelarekin bakarrik hitz egiteari utzi, eta betikoa berriro izan zen: etxeko poza.

Asteburu horretan, amak ileordea erosi zuen. Medikiak esan bezala, kimioa kili-kolo pasa zuen, goragale dezente zituen. Baina gero, ilearengatik ez balitz, bizitza normala egiten zuen. Amak minbizia zuela esan zigunean, nik ez nuen ondo ulertu bihurgune askoko bidaia izango genuela esan zuenean. Orain badakit kimioari buruz hitz egiten ari zela.

Ama hiru astean behin joaten zen onkologoarengana. Hitzorduaren bezperan odola atera behar izaten zuen beti. Amari izugarri gustatzen zitzaion esatea zein atseginak ziren denak eguneko ospitalean, hantxe jartzen baitzioten kimioaren tantaz tantakoa.

**OSPITALEA**



—Hau erizain jatorra, mutilak! Elaiak kimioarekin izan zitzakeen albo-ondorio guztiak azaldu zizkidan lehen egunetik. Bera ez zegoen beste egun batean, Nahiak gomendatu zidan ariketa fisiko moderatua egiten jarraitzeko, ospitalera lasai-lasai etortzea... Eta nire onkologoa ere bikaina da. Zoragarriak dira. Eta ba al dakizue zein den nire pentsamendu gogokoena kimioaren aurretik lasaitzeko?

—Ez, ama —esan zuen anaiak jakin-minez.

—Bada, gure bidaiari pentsatzen dut! Aireportuan gaudela imajinatzen dut, hegazkinera igotzen, jolas-parkean gozaten, eta hain zoriontsu egiten nau hori pentsatzeak, batzuetan benetakoa dela uste dut.

—Bai, ama, gutxiago falta da! Azken kimio saioa falta zaizu! Sendo-sendo jartzen zarenean, joango gara.





Kimioarekin amaitu eta bi hilabetera, amari ilea hazten hasi zitzaion. Hain ederra zegoen! Orain lehen baino kizkurrago irteten hasi zen. Indarrak berreskuratu zituen pixkanaka. Eta dena ondo zihoala zirudienez, hiru hilean behin bakarrik joaten zen onkologora. Orduan, ahal genuen guztietan joan ginen berriro herrira. Faltan bota genuen! Amari minbizia diagnostikatu ziotenetik hiru aldiz bakarrik joan ginen osabarekin buelta bat ematera, haiek dioten bezala.

Eta iritsi zen Markok eta biok hamabi urte bete genituen eguna. Oraingoan bai, hirurak ados jarri ziren gure oparia emateko.

—Goazen, mutilak! Ez duzue oparia ireki nahi edo zer? Baina non zaudete?

—Bagoaz! —oihu egin zuen Markok bere gelatik.

—Zer da hau? Zelako kutxa handiak!

—Baina zer erosi diguzue? —galdetu zuen anaiak, nahastuta.

—Kar, kar, kar. Ez fidatu itxurekin! —esan zuen osabak irribarrez.



Anaia eta biok hasi ginen bi kutxa erraldoiak mugitzen. Eta lehenengoaren papera kentzean, bigarren bat zegoen barruan bilduta. Eta gero, beste bat. Eta beste bat. Kutxa txiki batekin geratu ginen arte. Barruan gutun-azal bat zegoen!

—Nola engainatu gaituzuen! —esan zuen anaiak.

—Ez nuke imajinatuko! Kutxena zure ideia izan da, ezta, osaba?

—Nola ezagutzen nauzu Danel, kar, kar!

—Orain bai, bagoaz!! —oihu egin zuen amak—. Bidaia hau nire indarra izan da, nire ilusioa... Orain da unea, maitea? —esan zuen amak aitari begia kliskatuz.

—Jakina, egunez egun bizi...

—Ez hasi berriro, aita, ez, mesedez —kexatu zen nire anaia, aitari gogokoen zuen esaldia bukatzea galaraziz.

Markok eta biok hunkituta atera genituen hegazkineko lau txartelak gutun-azaletatik.

—Hiru aste barru joango gara. Osaba Nelarekin geratuko da —esan zuen amak.


—Au, au!



Eta azkenean, aurreikusitakoa baino bi urte geroago, gure ametsa bete genuen: hainbeste nahi genuen hegazkin-bidaia hura. Eta noski zoragarria izan zela! Benetan ahaztezina izan zen laurok batera onik joan ginelako.

Izan ere, aitak ondo esaten duen bezala, egunez egun bizi behar da, nork daki zer gertatuko den datorren asteburuan?

# AMAIERA



**Liburu hau doan deskarga dezakezu**

**[www.pacientes.gsk.es](http://www.pacientes.gsk.es) webgunean**



**Babesleak:**

